



Tolosako EAJk eta EAK hitzarmena sinatu dute elkarlanean jarraitzeko

UDAL GOBERNUA ▶ EB-Aralar koalizioarekin ez dute akordioa lortu, eta oposizioan egongo dira

BATZORDEAK ▶ Oposizioko alderdiek batzorde banaren buru izateko proposamena onartu dute ▶ 3

LEITZA ▶

‘Nafarroako Ahozko Ondarearen Artxibategia’ aurkeztuta

Aritz Ibañezek eta Patziku Perurenak azaldu dute ▶ 7



Ahots Atsegin elkarteak kudeatzen du duela bi urtetik eguneko zentroa

BIDEGOIAN ▶ Sei lagun daude Bidegoiango eguneko zentron, hiru egunero, eta beste hirurak astean bitan. Hauek zaintzen Ahots Atsegin elkarteko kideak aritzen dira. **NEREA URBIZU** ▶ 5

LEITZA ▶

Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketaren finalaurrekoa, gaur ▶ 7

IÑAKI AMENABAR ▶
ASTEASUKO ALKATEA

«Aurrera begira ez dugu herria gehiegi haztea nahi»


Bere laugarren legealdiari ekin dio Asteasuko alkate bezala ▶ 2



ARANTXA ABURUZA ▶
ADUNAKO ALKATEA

«Herriaren parte-hartzea bultzatzeko asmoa dugu»

Programan aurkeztu zituzten gaiak jorrazteko asmoa dute legealdi berrian ▶ 2



Amenabar eta Aburuza. i. g.

11. GARAÇARDO AZOKA
Uztailaren 19tik 22ra



Ordutegia: 18:00etatik 1:00etara

VILLABONA

POLITIKA ▶

Asteasuko eta Adunako alkateak beste lau urtez ariko dira Udalean; Iñaki Amenabar asteasuarrarentzat laugarren legealdia izango da eta Arantxa Aburuzarentzat bere bigarrena; beraien udaletan legealdi honetarako zer asmo dituzten azaldu dute

IMANOL GARCIA

IÑAKI AMENABAR ▶ ASTEASUKO ALKATEA

«Aurrera begira ez dugu nahi herria gehiegi haztea»

Laugarren legealdiari ekin dio Iñaki Amenabarrek Asteasuko alkate bezala

Alkate bezala laugarren legealdia hasi du EAKo Iñaki Amenabarrek (Asteasu, 1970).

Hauteskunde hauetan Bai Asteasuri bezala joan zarete.

Bai Asteasuri EAK, independenteak eta EAJk osatutako koalizioa da. Beste herri batzuetan ez da horrela gertatu. Asteasuko EAK beti defendatu dugu koalizioa eta elkarlana onuragarria dela Euskal Herri-rako eta aurtengoan tamalez nazio mailan ez da izan koalizioa.

Ezker abertzaleak ezin izan du aurkeztu Asteasun. Nola ikusten duzue egoera?

EAE-ANVk posible izan du hainbat herritan aurkeztea eta horietan ezker abertzaleak esfortzu bat egin du bere zerrendak legalizatuak izan daitezten. Beste herritan esfortzu txikia-

goa egin dute. Guk ez dugu inongo errurik. Auzitegi Gorenak eta gero Konstituzionalak erabaki zuten zerrenda horiek legez kanpo uztea. Gu beraiekin bildu ginen hauteskudene-ndoren eta proposatu genien udalgintzan eta batzorde-etan parte hartzea eta horri ezezkoa eman zioten, eta horretan dago gaia. Guk garbi dugu laugarren aldiz jarraian herriaren gehiengoak gu bozkatu gaituela eta guri tokatzen zaigula Udalaren eta batzordeen gidaritzan ematea. Batzordeetan parte hartu nahi badute gu prest gaude beraiekin hitz egiteko.

Zer balantze egiten duzu azken lau urteetan?

Lan asko egin dugu. Alde bate-tik kiroldegia eraiki eta mar-txan jarri zen. Kultur Etxea eta

mediku kontsulta berdin. Bi urbanizazio garrantzitsu, Eliz-mendikoa eta Kale Nagusikoa, burutu dira. Arau berriztatze-lean berrikuntza ere egin dugu. Berritu beharra zegoen herritarrentzako eta etxebizitza egiteko. Lau urte horietan herriko plangintza berritzen joan gara, etxebizitzak non egingo diren, bidegorria non-dik joan, eskola handitzeko, igerilekuak non joango diren zehazteko. Foru Aldundiak behin betiko onartu ditu. Bestalde Agenda 21 bultzatu dugu eta baita Euskara Biziberritze-ko Plan Nagusia ere.

Zer nabarmenduko zenuko lau urte hauetarako?

Aurretik aipatutako proiektu horiek guztiak aurrera eram-atea tokatuko zaigu. Zizurkilera doan bidegorriaren lana irai-

lean hasiko da. Igerilekuaren proiektua ere eginda dugu eta udaren ondoren lanak hastea espero dugu. Eskola handitzea eta etxebizitzak egitea ere aurrerikusten da, batik bat badaudelako gazteak etxebizitza babestuak egiteko zain. Esperientzia duen jendea sartu gara Udalean eta saiatuko gara hauteskunde programa betetzen.

Etxebizitzetarako, Asteasun dezente egin dira azken urteotan.

Azken lau urteetan ez dira etxebizitzak egin. Aurretik egindakoetan herritar dezente sartu da eta kanpotik ere jende dezente etorri da bizitzera. Biztanlegoan gorakada handia izan dugu. Aurrera begira ez dugu nahi herria gehiegi haztea. Egiten diren etxebi-



I. GARCIA

tza gehienak herritarrentzat izatea nahi duguna.

Nola dago Agenda 21aren gaia?

Hasieran egindako lana pisutsua izan da, diagnostikoa egitearena, datu biltzearena... Lau urte hauetan sortutako dinamika positiboa iruditzen zait, herritarren iritziekin elaboratua eta dinamika polita hasi da, bai herritarrekin bai inguruko herrieekin ere. Gauza politik egingo dira alor honetan lau urte hauetan. ◀

ARANTXA ABURUZA ▶ ADUNAKO ALKATEA

«Agenda 21arekin eta bestela ere parte-hartzea bultzatzeko asmoa dugu»

Arantxa Aburuzak alkateak dioenez programako gaiak jorratzeko asmoa dute

Arantxa Aburuzak (Aduna, 1975) bigarren legealdia hasi du alkate bezala. Aurrekoa hautesle zerrenda baten buru eta, oraingoan, EAE-ANV alderdiko zerrendaburu bezala.

EAE-ANV bezala aurkeztu zarete hauteskunde hauetan.

Herrian bilerak egin genituen eta EAE-ANV bezala aurkeztea erabaki genuen. Urte askotan ez da alderdi politikorik aurkeztu. Aurrekoan ere saiatu ginen alderdi politiko bezala aurkeztu, baina batzuek ez zuten nahi eta denak biltzeko elkarte herritar bezala aurkeztu ginen.

Beste herri batzuetan EAE-ANV ezin izan du aurkeztu.

Gogorra iruditzen zait herritarren eskubidea da beraiek sinisten duen proiektuan edo taldean Udalean egoteko auke-

ra izatea eta hori ukatu zaie. Bestalde, udal batzuetan ez da errespetatu herritarrek emandako bozka. Hemen inguruan gertatu da eta hori ere gogorra egiten da.

Nolako esperientzia izan da zuretzat aurreko legealdia?

Orain lau urte sartu nintzenen, lehendik banekien udal bat nolakoa zen. langile bezala ezagutzen dudalako. Baina hirigintza bezalako atalak ez nintzen asko kontrolatzen. Gogorrena hori izan da. Aurretik ere Udalean zegoen jendea bazez, eskarmentuarekin. Haiekin ikasi dugu eta ideia berriak ere jaso ditugu.

Udalean jende berria dago.

Hiru zinegotzik jarraitzen dugu eta lau berriak dira. Baina horietako batek ordezko

bezala bi legealdi eman ditu. Bakoitza ideia berriekin eta freskotasun handiarekin sartu dira.

Herri txikia izanik, herritarren parte-hartzea errezagoa izango da.

Hemen jendeak udaleko gaietan ez du parte hartzen, justu hauteskundeetan. 28 urtetan Udalean egondako batek esaten zuen bi eskuekin kontaktzerik zegoela osoko bilkuretar joandakoak. Azken lau urteetan bakarra etorri zaigu. Herri batzarrak egin direnean baten batzuk etorri dira. Agenda 21arekin eta bestela ere jendearen parte-hartzea bultzatzeko asmoa dugu.

Lau urte hauetarako zer asmo nagusi dituzue?

Hasita gaude igogailua jartz

udaletxean, liburutegira edo musika gelara joateko. Aurki hasiko dira Lardi auzoko obrak. Festen ondoren plazan ere beste obra batzuk egingo dira. Datorren urtean plaza guztia oinezkoentzat jartzea ere nahi dugu. Eskola handituko da ere. Gizarte zerbitzuak ere ahal dela berrituko dira. Posible bada tentsio altuko kablea aztertzen saiatuko gara eta irtenbidea bilatzen ari gara. Euskarari dagokionez, UEMAn sartuta gaude eta industria, merkataritza... euskalduntzen lagundu nahi dugu. Nazio eraikuntzan aritu nahi dugu, baita herriko elkarteek lagundu ere. Programako gaiak jorratu nahi ditugu.

Etxebizitzetarako, Asteasun dezente egin dira azken urteotan.

Etxebizitzetarako, Asteasun dezente egin dira azken urteotan. Egiten diren etxebi-



I. GARCIA

Arauk eguneratu ditugu eta 28 etxebizitza, horietatik 18 Udalak bultzatuta, egiteko aukera ematen du. Arau ezberdinetatik onartuta daudenak ere badaude eta oraindik ez direnak eraiki. Hortik aurrera beste irtenbide batzuk hartu behar dira uste dugu: etxe hutsen zerrendak eginez eta horiekien zer egin daitekeen ikusiz, eta baserri eta etxe handiak berrizterakoan irtenbide ezberdinak emanez. ◀

TOLOSA ▶ POLITIKA

Hitzarmena sinatu dute EAJK eta EAK legealdi berrirako

EB-Aralarrekin ez dute akordioa lortu, eta oposizioan jardungo dira; PSE-EEK, PPK eta EB-Aralarrek batzorde banaren buru izateko proposamena onartu dute



Onintza Lasa, Andoni Iturzaeta, Begoña Tolosa eta Jokin Bildarratz, herenegun, udaletxean. I. TERRADILLOS

INÍGO TERRADILLOS

Aurreko legealdian bezala, hurrengo lau urteetarako ere EAJK eta EAK akordioa sinatu dute Udal Gobernu osatzera orduan. Kasu honetan, ordea, ez dira EB-Aralar koalizioarekin batera joango, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak herenegun azaldu bezala, «orain arte bezala hirurak elkarrekin joatea eskaini zitzaion, baina ez dute nahi izan eta oposizioan egotea erabaki dute».

EArekin akordio batera iristea «erraza» izan dela adierazi zuen Bildarratzek. «Aurreko le-

gealdian ere elkarrekin aritu gara, beraz, ez da zaila izan hasi berri den honetarako ados jartzea; balorazio positiboa egiten dugu». Bere aldetik, Andoni Iturzaeta EAren Tolosako burua ere «gustura» azaldu zen lortutako akordioarekin; «oso positibotzat jo dugu EAJK gure proposamenekiko izan duen jarrera, beraz, azken 4 urteak eta gero, elkarlanari jarraipena ematea erabaki dugu; gainera, pozgarria iruditzaigu, EAJK gehiengo osoa lortu ondoren adostasunerako erakutsi duen borondatea». EA ere borondate horrekin aritu dela gaineratu zuen Iturzaetak.

EB-Aralar, PSE-EE eta PP izango dira, beraz, oposizioan egongo diren alderdiak. Dena den, «hurrengo lau urteak oso garrantzitsuak izango dira eta asko izango dugu jokoan» adierazi zuen Jokin Bildarratzek, eta hori kontuan hartuta, «oposizio alderdiei batzorde bateko buru izatea eskaini diegu». Guztiek onartu dute proposamena, eta ondorioz, PSE-EE kirolen batzordeko buru izango da eta PPK lur azpiko aparkalekuak kudeatuko ditu. «EB-Aralarrek ere batzorde baten buru izateko borondatea azaldu du, baina oraindik ez dugu adostu zein izan daiteke-

en batzorde hori», adierazi zuen Jokin Bildarratzek herenegun, udaletxean eginiko ekitaldian.

Akordioa sinatuta

Behin 2007-2011 urte bitartean jarraituko dituzten lan ildoak adostuta, herenegun sinatu zuten ituna bi aldeek, hau da, EAJK eta EAK, nolabaiteko ofizialtasuna emateko helburuz. Hain zuzen ere, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Begoña Tolosa Tolosako EAren buruak, Onintza Lasa Tolosako EAren zerrendaburuak eta Andoni Iturzaeta Tolosako EAren buruak sinatu zuten.

Etxebizitzaren gaia izango dela datozen urteetan zutabe nagusia azaldu zuten, eta «hemen, bereziki alokairua sustatu nahi dugu gabezia handia baitago», esan zuen Andoni Iturzaetak. Beste zutabe nagusia industria, ekonomia eta merkataritza izango da. «Atzerakada handia izan du alor honek azken urteetan eta bultzada ematea izango da helburua», azaldu zuen Iturzaetak.

Bi zutabe nagusi horietaz gain, Plan Orokorren, Gerontologikoaren, Txotxongiloen Nazioarteko Zentroaren, Hizkuntz Eskola Ofizialaren eta Haurtzaindegia gaurtatzea eta Abastoseko Kafe Antzokia hezur mamiatzea nabarmendu zituzten datozen lau urteetarako proiektuen artean, eta horrekin batera, Tolosa kulturalki buru izaten jarraitzeari garrantzia eman zioten. Bestalde, berdintasunaren inguruko sail berria sortuko dute eta Agenda 21en baitan Tolosa 2015 ere sartuko dute.

TOLOSA ▶

KZgunea itxita egongo da udako egunetan

Tolosako KZgunetik erabiltzaileei jakin arazi nahi diete, uztailearen 27tik irailaren 3ra bitartean KZgunea itxita egongo dela.

ASTEASU ▶

Santamaña jaietan, gaur herri afaria

Asteasuko Santamaña jaien baitan, gaur 21:00etan, herri afaria egingo dute; gauean, Laja eta Narbaiza trikitilariak ariko dira giroa alaitzen eta goizaldean, txokolatada prestatuko dute nahi duten guztientzat.

TOLOSA ▶

Ikaburuko kobetara irteera egingo dute etzi

Ereite elkarteak antolatuta irteera egingo dute etzi, Nafarroara. Txango honetan Ikaburuko kobazuloak bisitatzeko aukera izango dute. Hara joateko autobusa 10:30ean aterako da Santa Klaratik, eta 18:30ak aldera itzuliko dira berriro egielatan Tolosara. Izen-ematea 678 63 83 94ra deituta egin daiteke.

TOLOSA ▶

Aparteko osoko bilkura, gaur, 08:00etan

Aparteko osoko bilkura egingo dute gaur udaletxean, 08:00etan hasita. Batzordeak osatzea eta udal ordezkariek izendatzea izango dira, besteak beste, landuko dituzten gaiak.

hilberria ▶



Pedro Urkola Agirre

(Ramona Otaegiren alarguna)

ATZO hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-



Seme-alabak: Joxe M^o eta Helena Larrañaga, Pello eta Nava Marselina; bilobak: Beñat, Sara eta Iñintza; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko SEIETAN, SAN FRANTZISKOKI parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Lizardi Olerkariaren Enparantza, 2. 2. E. oinarria ▶ gorpua Tolosako Funeraria Vascongada beiletegiaren dago, goizeko 10:00ak arte

TOLOSAN, 2007ko uztailearen 20an

hilberria ▶



Gregorio Urbizu Arrieta

UZTAILAREN 12AN hil zen, Bartzelonan, 57 urte zituela



Osaba Gorgo, beti maiteko zaitugu, eta bizirik edukiko zaitugu gure bihotzetan.

Urbizu iloba guztiak

Haren animaren alde meza ospatuko dute GAUR ZEGAMAN, 19:30ean, San Martin parroki elizan. Aldez aurretik, eskerrik asko.

ZEGAMA, 2007ko uztailearen 20a

HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK 19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko hitza.info Tel.: 943 65 56 95

GIZARTEA ▶

Lana eta familia uztartzeko aukera

Indarrean da Mendekotasun Legea dagoeneko; senideen zaintza eta lana bateragarri egitea du helburu

ESTI EZEIZA

Duela egun gutxi jarri da indarrean, Eusko Jaurilaritzako Gobernu Kontseiluak onartuta, Mendekotasun Legea. Dekretu honekin, mendekotasun egoeran dauden senideen zaintza eta lana bateragarri egiteko neurriak arautzen ditu.

Eskubide hau euskal herritar guztiek dute, hala ere, hau eskatzeko bete beharreko baldintza, eskatzailearen senitartekoak mendekotasun egoera pairatzea izango da. Behar honen maila, hau da, mendekotasun maila, hiru gradutan banatuko da. Halaber, oraingoz, hirugarren mailakoentzako laguntzak bakarrik hasi dira tramitatzeko. Dena den, aurreikuspenen arabera, lege honi es-

ker, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait laguntza emango ditu: seme-alaben zaintzaileak kontratatzeke, mendekotasuna dutenak zaintzeko, langileak ordetzeko enpresei ematen zaizkien laguntzak eta seme-alabak zaintzeko. Laguntza ekonomikoak emango dira, esaterako, hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia eskatzen denean. Bestalde, zehazteko dago, sei urtetik beherako seme-alabak dituztenen kasua.

Dekretuak dakarren berrikuntzetako bat da, gurasoak hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeke laguntzak emango direla. Baina, aldaketa nagusienetakoa da, lehen, lan eszedentziak eta lanaldi murriz-



Adinekoen egoitzetan plaza bat izateko eskubidea dute orain. E. EZEIZA

ketak hiru urtetik beherako seme-alabak zituztenek bakarrik har zitzaketela da. Orain, berriz, mendekotasun egoeran dauden senideak zaintzeko ere har daitezke neurri horiek. Bestalde, egoitzetara joateko eskubidea izango dute adinekoek. Orain arte, administrazioa ez zegoen behartuta, mendekotasun egoeran zeudenentzat plazak sortzera.

Orain arte luzatutako informazioaren arabera, eszedentziengatik 2.400 euro emango dira urtean, amen kasuan. Aldiz eskatzailea aita bada, 3.000 euro emango zaizkio. Lanaldi erdia murrizteagatik, 1.800 euro emango zaizkie urtean amei, eta 2.400 aitei. Azkenik, lanaldia heren bat murrizteagatik, 1.350 euro emango zaizkie amei, eta 1.800 aitei.

Mendekotasun egoeran dauden ahaideak zaintzeko eszedentziak hartu edo lanaldia murriztu duten langileei laguntza ezberdinak emango zaizkie.

MAITE SERRANO ▶ TOLOSAKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUETAKO LANGILEA

«Guk orain arte ere baliabide horietako asko bagenituen»

Maite Serrano (Ordizia, 1973) eta bere lankideak Gizarte Zerbitzuetan dihardute lanean. Hala, lege berri hau dela eta, herritar guztiak gonbidatzen dituzte, beraien bulegotik pasa eta zalantzak argitzera. Hau, astelehenean ostiralera, 10:00etatik 13:00etara zabalik dago, ostegunetan izan ezik.

Zein da laguntzak eskatzeko prozedura?

Mendekotasun egoeran ahaideak dituztenek hona etorri behar dute laguntzak eskatzera. Honela, hemen eskaria jaso eta Gipuzkoako Foru Aldundira bideratzen dugu. Honek, balo-

razio bat egiten du, benetan, pertsona horrek beste pertsona baten beharra duela baieztatzeko.

Lege berri honekin gauzak asko aldatuko al dira?

Hemen gertatzen dena da, estatutu mailan ateratako zerbaite dela, eta guk orain arte ere baliabide horietako asko bagenituen, baina hauek ez zeuden legean idatzita.

Jendea asko etorri al da lege berri honen babesa eskatuz?

Hasieran, lehendabiziko egunetan jendea etortzen zen balorazioa eskatzera. Baina, orain, orain arte ere, beharra

zuen jendea ere begiztatua gertatzen.

Dagoeneko aurrera eramaten hasi al zarete eskariak?

Legea indarrean dago, baina honen baitan, oraindik baliabide asko erregulatu gabe daude. Hauek emango dira, baina oraindik ez dakigu noiz. Orain, hirugarren mailan daudenek bakarrik jasoko dituzte laguntzak, hau da, mendekotasun handiena dutenak.

Zein da aldaketarik onuragarriena?

Mendekotasun egoeran dagoen pertsona batek, orain eskubidea dauka egoitzan plaza



E. EZEIZA

bat izateko. Lehen ez zuten eskubiderik, tokia bazegoen, ongi, eta bestela batere ez. Orain berriz, itxaron zerrendak egongo badira ere, egoitza batean sartzeko eskubidea dute. **Aurretik lanik egiten ez zuten**

batek ere eskatu al dezake laguntza hau?

Bai, honek ere laguntza ekonomiko bat jasoko du. Hala, honekin gizarte segurantzaren alta eman ahal izango du, eta kotizatzen hasi. ◀



943 69 40 01
Erniobera, 19

Villabonako garagardo azokan zuekin!



Kale Nagusia 45
943 247 469



Erniobera, 4
943 69 05 91



Berria, 15
943 69 09 41



Kale Nagusia 2

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA

Konpainia onean

Ahots Atsegin elkarteak egiten du lan eguneko zentroan; helduekiko harreman hurbilean eta egunerokoan egin beharreko mugimenduak lantzea dute oinarri

NEREA URBIZU

Sei lagun daude Bidegoiango eguneko zentroan; hiru egunero, eta beste hirurak astean bitan edo behin joaten dira. Bertan, Errezilen egotearekin batera, bost langile daude: Ahots Atsegin elkarteko kideak. Paki Eizmendi, Lourdes Dorronsoro, Lourdes Uzkudun, Maria Jesus Gallarraga eta Guadalupe Arrue dira elkarteko bostak.

Ahots Atsegin, hitzek berriak dioten moduan, eguneko zentro honek bi zutabe ditu nagusi: gimnastika egitea egunerokotasunean erosoago edo gero eta zailagoa ez izateko, eta helduekin hartu-eman, jarrera



Eguneko zentroa. N. URBIZU

eta tratatzeko era hurbila, beroa eta goxoa izatea. Hango langileek esan bezala, «hasieran aiton-amonon urtebetetze-etan elkartzen hasi genituen: Errezilgoak hona etortzen ziren, eta Bidegoiangoak hara

joaten. Hau oso aberasgarria zela ikusi genuen, mesedea egiten zela». Horregatik, beste jendearekin zuten harreman horrek poza ematen ziela ikusita, hori lantzen hasi ziren. Gaur egun asteazkenetan Bidegoiandik Errezila joaten dira eta asteartean eta ostegunetan bertan gelditzen dira.

Horrez gain, San Isidro nekazarrien patroia izanik, egun hori ospatzen hasi ziren, haien garaian ospatzen baitzuten. «Me-rienda egiten zuten, eta orain ere hori egiten dugu». Inauterriak umeen inguruan igarotzen dituzte: «Harrigarria da jartzen zaieen aurpegia eta sentitzen duten hori ikusi egiten zaie».

Iaz proba berria egin nahi

izan zuten: Zumaiara joan ziren eta «sentsazio horiek ikusteak asko betetzen gaitu: asko betetzen du horrek. Gainera, haiengandik jasotzen duzun informazioa handia da». Aurten, Zarautzera joan dira.

Bertan denbora gehien daramanetakoa Joxe Mari Etxenagusia da. Errezildarra da eta 67 urte ditu: «Bi urte eta erdi daramaten hemen eta oso gustura nago», dio Errezilgoak paseoa egiten duten garaian. «Goizean etorri eta gimnastika egiten dugu besoekin, bizikleta ere praktikatzeko dut. Ondoren, atsedean pixka bat hartzen dugu, gero paseoa egitera joateko. Bazkaldu ere bertan egiten dute: «Oso ondo jaten

dugu, ederki, lepo», gogoratzen du Joxe Marik. Ondoren, siesta egiten dute eta berriz paseora joaten dira. «Txarra baldin badago gimnastika egiten dugu, kartetan aritzen gara... Bestela kalera joaten gara».

Zarautzera joan zireneko esperientzia gogoratu du errezildarrak: «Hondarreak ezin mugitu geratu nintzen. Arratsaldean ederki ibili ginen. Galerna sartu zen, eta mendiko haizea bezain gogorra da, kontuz. Berriz joateko modukoa izan zen, baina uretara ez naiz sartuko».

Bertako langileek garbi erakutsi dute ez dela «dehengoko zaharren egoitzetako bezalako giroa: jendeak ideia hori zuen hasieran». Paseoak egunero egiten dituzte, eta haien arteko harremanak oso onak direla ikusi daiteke. Eguneroko zainketan Lourdes Dorronsoro aritzen da, baina lantaldea da zentroan funtzionatzen duena: «Aiton-amonak ere lagundu egiten dute».

PAKI EIZMENDI ▶ GERIATRA

Paki Eizmendi (Beizama, 1963) Ahots Atsegin elkarteko kide bat da. Duela lau urte osatu zuten elkarte eta abenduan 3 urte egingo dituzte Bidegoiango eguneko zentroan.

Nolakoa da eguneko zentroaren funtzionamendua?

Balioanitz da; 8 ordutarako etor daitezke, bi ordutarako, edo arratsaldean... Errezilgoak, Albizturkoak, Bidanikoak eta Beizamakoak datoz.

Zeri ematen diozue garrantzia?

Ariketa fisikoak egiteari: errehabilitaziorako tresnak eskatu genituen eta onartu zituzten. Ez dugu daukaten mugikortasun hori areagotzen, baina bai

«Erakusten duten esker onak konpentsatzen du»



N. URBIZU

Nola sortu zenuten elkarteak?

5 bazkide gara, lan esperientzia genuen. Lan egiten genuen Ilargin, eta arratsaldean ikasi. Indar handia genuen: geriatría egin genuen, eta 3. adineko mundu hori gehiago ezagutzen hasi ginen. Alazne Dorronsorok asko lagundu eta bultzatu gintuen. Eman beharreko pausoak berak eman zituen. Hari esker gaude hemen.

Etorkizuneko lana da helduekin egotea.

Oso lan gogorra da, esfortzu handia suposatzen duena, eta sakrifizioa suposatzen duena

ere bai, baina helduek erakusten duten esker on horrek izugarri konpentsatzen du. Gabezi handia dago, ordezkatzeko garaian inguruko jenderik ez dago-eta. Gainera, herriko jendea nahiago izaten da. Aberasgarria da lana, baina gogorra ere bai.

Nola ikusten duzu egungo gizarteak hirugarren adinekoenganako?

Lehen baino hobeto ikusten dut. Begirune gehiago dago eta jendea kontzientziazten hasia ere badago. Bestalde, eguneko zentroa soluzio on bat iruditzen zait. ◀

mantendu, edo hobetu. Ez dugu diziplina aldetik ezer zorrotzik egiten, baina nolabaiteko askatasun hori ematen zaie.

ALBIZTUR ▶

Gizonezko bat iruzur egiten ari dela salatu du Udalak

ERREDAKZIOA

Gizonezko gazte bat kale nagusiko etxeetan Repsol enpresakoa dela esanez, iruzur egiten aritu dela salatu zuen atzo Udalak. Etxeko jabeek berrazterketa bat egin behar dela eta 90 euro kobratu zizkien, guxtienez hiru etxetan. Hori dela eta, gainontzeko herrietan ere kontuz ibiltzeko adierazi dute.

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KM kulturunea

Kalita Mitxelena Kulturunea
Urdulena kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK

Soinu dimentsioa:
Artistak: Allen Productions, Mikael Arca, Andres Boushard, Ramon Gonzalez-Arroyo, Gary Hill, Tom Johnson, Donatella Landi, Bernhard Leitner, Alvin Lucier, Basukosin Ostolazkyk, Paul Panhaysen, Manuel Rocha Harbide, Isidoro Valcárcel Medina

Uztailaren 13tik
Irailaren 15era
Erakustaretoan

Aurora Bengoechea (1943-1991)
Bizitza pintatua

Uztailaren 13tik
Irailaren 15era
Ganbara aretoan

Erakustetaren ordetegia
10:30-14:00 / 16:00-20:30
Igarde, atselehen eta jaiegunetan ikusita
Bilota gidatutako kartzetako diruz: 647 346 025

EUSKADIKO SEGA TXAPELKETA ▶

Goikoetxea, Gabirondo eta 'Urki' txapela eskualdera ekarri nahian ariko dira

Eskualdeko hiru segalari eta Jon Lapazaran bizkaitarra lehiatuko dira etzi, Euskadiko Segga Txapelketako finalean, Oiartzungo Pikoketako belardietan



Gipuzkoako Segga Txapelketan eskualdeko lau segalari iritsi ziren finalera, Euskadikoan lautik hiru. HITZA

ASIER IMAZ

Etzi Oiartzungo Pikoketa belardietan Euskadiko Segga Txapelketakofinala jokatuko dute 12:00etan. Bertan eskualdeko hiru segalari ariko dira txapelaren lehian: Joxe Gabirondo eta Andoni Goikoetxea gazteluarrak eta Jexuxmari Ormaetxea, *Urki*, orendaindarra. Finala leku laugarren segalaria berri, joan den larunbatean

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Tolosan, ebeko lanak egin eta bi ume zaintzeko emakume euskalduna behar da, goizez. Irailean hasteko. Deitu: 677 45 25 97.

SALGAI

Etxebizitza. Amezketan lau urteko pisua, 90m². Duplex-ean egokitua: 3 logela, egongela-jangela, sukalde eta komun haundiak. Trastero bikoitza eta garaje itxia, 23m². Rustiko itxura, eguzkitsua eta prezio interesgarria. 647 41 51 76.

Bizkaiko Segga Txapelketa irabazi zuen Jon Lapazaran izango da.

Iaz ere lehian aritu ziren hiru segalarik errepikatu egingo dute Euskadiko Segga Txapelketako finala, hau da, Andoni Goikoetxea egungo txapeldunak, Joxe Gabirondo Gipuzkoako Segga Txapelketako aurtengo irabazleak eta Jon Lapazaran Bizkaiko txapeldunak; Jexuxmari Ormaetxea, *Urki* izango da berritasuna, iaz ez baitzuen esku hartu txapelketan. Mikel Aranalde gazteluarrak izan zen iaz aritutako laugarrena, baina aurtun ez du txapelketan parte hartu gazteluarrak. Finala, finalerdiak bezala Oiartzungo Pikoketako belardietan jokatuko dute, baina ez soro berean. Lau segalariak 12:00etatik 13:00etara ariko dira deman. Ordubeteko lanaren ondoren, belar kilo gehien moztzen dituenak lortuko du segalari onenaren txapela. Segalari bakoitzaren koadrila edo biltzaileak, 12:10ean hasiko dira moztutako belarra biltzen, hau da, segalaria lanean hasi eta 10 minutura. Amaieran ere, denbora hori izango dute azken belarrak biltzeko, 13:10 bitarte hain zuzen ere.

Segalariak 2007. urtearen lehen erdian, proba ugari jokatzeko aukera izan dute, Gipuzkoako Txapelketa eta Nafarroako Txapelketa alde batetik. Etzi jokatu duten Euskadiko Segga Txapelketaren finala jokatu aurretik, kanporaketa ugari jokatu behar izan dituzte eta hori nahikoa ez eta nazioarteko eran ere moldatzen direla erakutsi dute. Euskal Herriko selekzioa eratzeko asmoz Tolosa eta Olaberrikan kanporaketak antolatu zituen Almitza Segga Elkarteak, abuztuaren 24an eta 25ean taldeko Segga Txapelketan parte hartzeko. Azkartasuna eta txu-



Joxe Gabirondo. A. ETXANIZ



Andoni Goikoetxea. A. ETXANIZ



Jexuxmari Ormaetxea, *Urki*. A. I.

IBARRA ▶

Gaur 09:00etan ezohiko bilkura udaletxean

Ibarrako alkateak, Chelo Romeok, gaur 09:00etan udalbatza osoaren ezohiko bilkurarako deialdia zabaldu du. Udaletxearen bilkura aretoan elkartuko dira zinegotziak eta gai zerrendaren barnean, 7 puntu sartu ditu alkateak. Horien artean, legealdi berri honetarako batzordeak banatuko dituzte.

IBARRA ▶

'Interruptour' antzezlanaren Gaztetxean

Etzi, hilak 22, Ibarrako Gaztetxean 19:30ean Interruptour antzerki taldeak, *Interruptour* antzezlanaren eskainiko du. Emanaldi honetan bizitzari erreparoa egiten dion gitarrista baten istorioa kontatzen da, abesti ezberdinez lagundurik, besteak beste, Mikel Laboa, La Polla eta abarren kantuak entzuteko aukera egongo da, antzerki taldearen ukituz.

IBARRA ▶

3x3 modura futbol txapelketa abuztuan

II. San Bartolome futbol txapelketa antolatu dute abuztuaren 25ean Ibarrako Emeterio Arrese parkean. 3x3 modalitatean jokatuko da, belar artifizialezko zelai txikian. Neskek eta mutilek, izena emateko epea zabalik dutela jakinarazi dute antolatzaileek Sendi Ekintza eta Zubiaurre tabernan.

ALTZO ▶

Festetako zikro-jate afarirako txartelak salgai

San Inazio jaien baitan, hilaren 30ean —astelehena— 20:30ean, iaz bezala afari berezia egingo dute, hau da, zikro-jate antolatu du Altzoko jai batzordeak. Bertara joan nahi dutenek Altzoko Arandia jatetxean dauden txartelak erosi behar dituzte. Salneurria 20 eurokoa da. 200 pertsonentzako izaten da afari hau, eta komenigarria da txartelak lehenbailehen erostea.

Abuztuan Austriara

Segalariak 2007. urtearen lehen erdian, proba ugari jokatzeko aukera izan dute, Gipuzkoako Txapelketa eta Nafarroako Txapelketa alde batetik. Etzi jokatu duten Euskadiko Segga Txapelketaren finala jokatu aurretik, kanporaketa ugari jokatu behar izan dituzte eta hori nahikoa ez eta nazioarteko eran ere moldatzen direla erakutsi dute. Euskal Herriko selekzioa eratzeko asmoz Tolosa eta Olaberrikan kanporaketak antolatu zituen Almitza Segga Elkarteak, abuztuaren 24an eta 25ean taldeko Segga Txapelketan parte hartzeko. Azkartasuna eta txu-

kuntasuna uztartzen diren proba honetan, bi eskualdeetako segalari ugari osatuko dute Euskal Herriko selekzioa. Bi kanporaketetan emaitza onak lortu ondoren, gizon-nezkoetan Jon Kanflanka leitzarra, Joxe Gabirondo eta Andoni Goikoetxea gazteluarrak, Arkaitz Arteaga baliarrindarra eta Egia orendaindarra egongo dira, Goenaga, Izagirre, J. Etxeberria, Lizaso eta G. Etxeberriaz gain. Nesketan berriz, Gabirondo gazteluarra, Irazustabarrena, Astondoa, Olano eta Antsok osatuko dute Europako txapelketara joango den taldea. ◀

LEITZA ▶ PILOTA

Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketaren finalaurrekoa, gaur

Leitza (Nafarroa) Maeztu (Araba) herriaren aurka lehiatuko da Amazabal Pilotalekuan, 19:30ean, hiru norgehiagokatan



Herri Artekoa hasi zenetik hainbat herrik parte hartu dute, baina finala bi herriek jokatuko dute soilik.n.u.

NAIARA GARZIA

Gaur Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketaren finalaurrekoa jokatuko dute Leitza (Nafarroa) eta Maeztu (Araba)

Leitzako Amazabal Pilotalekuan, 19:30ean. Orotara hiru izanen dira gaur Amazabalen jokatuko dituzten partidak.

Maeztuko Rituerto eta Mendinueta Ander Aranburu eta

Jon Jaunarena Leitzakoen aurka ariko dira eta lehenengo norgehiagoka izanen da, kadeteen mailakoa.

Hauen ondoren gazteen mailako partida jokatuko dute

Oian Alduntzin eta Aitor Goikoetxeak Berrueta eta Albaradoren aurka. Azkenik, nagusien mailan Mikel Olazabal eta Mikel Iriarte ariko dira Maeztuko Jauregi eta Torresen aurka. Irabaziz gero, Leitza finalera pasako litzateke. Hau uztailearen 28an jokatuko da, Arrasaten.

Aurreko asteburuan Maezturen aurka jokatutako hiru partidetatik bi irabazi egin zituen Leitza. Mikel Olazabal eta Mikel Iriarte izan ziren alde handienarekin irabazi zuten pilotariak, 22-3 emaitzarekin gailendu baitziren. «Oso erraz irabazi genuen, baina beti partida guztiak jokatu egin behar dira, emaitzak ikusteko». Gazteek 22-12 emaitzarekin galdu zuten eta kadeteek 22-15eko emaitzarekin irabazi. «Han jokatu genuenean bi irabazi genituen eta bat galdu eta orain espero dugu gauza bera egitea, bi partida irabazi eta erraz pasatzea, baina baliteke partida bat irabazi eta gero tanteoan erabakitzea. Tanteoan oraingo 16 tantoko abantaila daukagu».

Aurrerako pilotarien poza

Nafarroako Herri Arteko Txapelketa irabaztea Aurrera Pilota Eskolarentzat «poza» handia izandu dela adierazi du Iriartek, baita Euskal Herriko Herri Artekoan parte hartzea ere. «Ikaragarriko poza da. Orain jende gehiago azaltzen da entrenamenduetara, denak zoriontzan gaituzte. Irabazita beti animo gehiago izaten da», dio Aurrerako Iriarte pilotariak.

LEITZA ▶

Suteen Aurkako Elkartearen bilera, etzi

ERREDAKZIOA

Leitzako Suteen Aurkako Aseguru Elkarreak batzar berezia egingen du igandean, 12:00etan, Leitzako Udal Areto Nagusian. Bertan elkarlearen etorkizuna erabakiko dute.

«Gu elkarlea legalizatu nahian gabilta. Gizarte honek 100 urte inguru ditu, baina ez dago legearen barruan. Legalizatzen hasi ginen, baina bakarrik suaren aurkako legalizatzen digute eta hori ere arazo handiekin. Pisuetan bizi direnak ere asko dira, ordea, eta askok nahi dute ur isurketak eta horrelakoak ere legalizatzea», dio Bitoriano Iparragirre lehendakariak. «Desegin edo beste elkarte bat egin, hori erabakiko dugu igandean».

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KULTURA

‘Nafarroako Ahozko Ondarearen Artxibategia’ proiektuaren aurkezpena egin dute udaletxean

Aritz Ibañez proiektuaren koordinatzaileak eta Patziku Perurenak proiektua azaldu zuten

N. GARZIA

Asteazken iluntzean *Nafarroako Ahozko Ondare Artxibategia* izeneko proiektua abian jartzeko herri bilera egin zuten. Bertan izan zen proiektuaren koordinatzailea, Euskokultur Fundazioko Aritz Ibañez, proiektu honen aurkezpena ematen ibili zen, bera izanen baita herrian proiektuaren arduraduna, nahiz eta azkenean talde lana izanen den.

Aritz Ibañezek azalpenak eman zituen proiektuaren in-

guruaren, eta denentzat lagungarri izan zen bideo bat jarri zuten. Bideo honetan, bertaratu zirenek proiektu honen helburuak entzun ahal izan zituzten, eta beste zenbait zonaldeetan egindakoa ere ikusteko aukera izan zuten. Aritz Ibañezek azaldu zuen bezala, «helburua herriko jendeari elkarrizketak egitea da, lehenagoko ohiturak eta bizipenak bideoaren bitartez biltzeko». Bideoan argi azaltzen zen bezala, «hurrengo belaunaldiari eskaintzeko xedez egiten da proiektua». Ahozko transmisioa oinarritzat zuen gizarte ikus-en-

tzuneko gizartearen bilakatu den heinean, ondare material eta immaterial hori berreskuratu eta babestea du helburu proiektuak, beraz.

Proiektuaren lehenengo urratsak zehaztu nahian dabilta, herritarren parte-hartzea funtsezkoa baita proiektua abian jartzeko. Talde bat sortzea ezinbestekoa da, hauek beraiekin proposamenak egin ditzaten, alde batetik zer gai jorratu beharko liratekeen ikusteko, eta bestetik, gai horien inguruan herrian ze pertsona elkarrizketatuak izan daitezkeen aukeratzeko.

Horretarako galdeketa bat banatu zuten, hainbat gairekin: etxea, herriko bizitza, ekonomia... galdeketa gai bakoitzaren barruan hainbat gai zehazten dira, bertan proposamenak idatzi behar dituzten herritarrei lana errazteko.

Ibañezek azaldu zuenez, «Leitzako Udalarekin adostukoaren arabera, 20 elkarrizketa inguru egingo ditugu». Oraingoan, hemendik 2 aste barru beste bilera bat egingo dute, «herria bera bere ondarearen gordetzailer eta hedatzaile izatea» helburu duen proiektua abian jartzeko.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aitzo. Urtero bezala zikiro jatea izango da Aitzoko jaietan, hilaren 30ean. 20 eurotan daude salgai, eta 200 lagunendako lekua dago. Txartelak lehenbailehen erostea eskertu dute antolatzaileek. Arandia jatebixean eros daitezke.

Asteasu. Santamañako jaien baitan: 21:00etan, herri afaria; gauean Laja eta Narbaiza trikitilariak; goizaldera txokolatada. Bihar, 17:00etan, haur jolasak eta 18:30ean, VII. Nazioarteko toka txapelketa; gauean Epelde eta Lutxudio trikitilariak; goizaldera txokolatada.

Ibarra. Interruptour antzezina Gaztebixean izango da igande honetan, Interruptus antzerki taldearen eskutik.

Tolosa. Hilaren 27, 28, 29, 30 eta 31n Picos de Europa ireteera antolatzen du Oargik. Torre de los Horcados Rojos Pico Urriello, Peña Castil eta Torre de la Pardina igoko dute. Izen-ematea 637 830380 zenbakian.

Villabona. Garagardo Azoka Villabonan, Txermin auzoan. 21 garagardo mota, euskal eta Alemaniako musika. 18.00etatik 1.00etara irekita, gaur eta bihar 02:00etaraino.

Villabona. Hilaren 29an 10:30ean, jaietan, egingo den kroserako izen-ematea zabalik da Olaederra kiroledegian 10etatik 14etara edo egun berean Zunbeltz elkartearen.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Irurtzun. Mutloa, A. San Martin, 5. 112.
 Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren erreparazioa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
 20:00-21:00. Asteko onena.
 21:00-22:00. Igo bolumena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Hamaikagarrenean, hamaika aukera esku-eskura

VILLABONA ▶ Atzo inauguratu zuten XI. Garagardo Azoka Villabonako Txerminen. Eskualdean antolatzen direnen artean, jendetsuenetakoa izan ohi da azoka hau eta atzokoan ere igarri zitekeen festa usainean bildu zen jendetza. 01:00ak arte luzatu zen jai eta gaur eta bihar, berri, 02:00ak arte izango ditu azokak zabalik ateak. Irrintzi elkarteak antolatzen duen feria, hain zuzen, igandera arte luzatuko dute. Barra atzean, Irrintziko kideak, senitarteko-

ak eta lagunak aritu ziren lanean eta halaxe egingo dute datozen egunotan ere. Bestalde, berrikuntzak ere izan dira, izan ere, aurten barraren aurreko alde ere estali dute. Bertan atondu dituzten mahaietan 800 lagun inguru eser daitezke eta, behin azoka amaituta, muntaia bertan utziko dute herriko festetako erabilgarria izango delako. Ezbairik gabe, santioetarako iragarpen ezin hobea izango da Garagardo Azoka. IMANOL GARCIA

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

EUSKAL JAIA
Billabona

Uztailak **28** Larunbata

Billabonako Plazan

"SALTO ETA JAUI, EUSKARAZ BIZI!"

18:00etan Sagardo dastaketa pintxoan laguntzarekin Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak alaiturik
19:30etan BERTSOLARIAK: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso
20:00etan ERROMERIA: Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak
21:00etan Afari herrikoia plazan: **Zikiro Jana**
00:00etan ERROMERIA: Patxi eta Konpania

Garaioko euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaituztegu
Zikiro janerako txartelak salgai: 20€